



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



# **Hizkera tabuaren itzulpena euskarara bikoiztutako ikus-entzunezko testuetan**

**Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua**

**2020-2021 ikasturtea**

**Naia Zubero Pérez**

**Tutorea: Zuriñe Sanz Villar**

**Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazioko Saila**

**Ezagutza arloa: Itzulpengintza eta Interpretazioa**

## Laburpena

Gradu Amaierako Lan honetan ingelesetik itzuli diren hiru ikus-entzunezko produktuetan azaltzen den hizkera tabuaren analisia egingo da, eta ondoren euskaraz nola itzuli den aztertuko da. Gure kasuan, aztergaiak *Apocalypse Now*, *Snatch* eta *Gran Torino* izango dira, hiru hamarkada ezberdinetan itzulitako filmak direlako, eta horregatik itzulpen estrategien eboluzioa aztertzeko baliagarri izango direlako. Beraz, helburu nagusia hiru hamarkada horien artean hautatutako produktuen itzulpenetan alderik dagoen egiaztatzea izango da, batez ere itzulpen-tekniken erabileran, baina baita hizkera tabuaren parte diren terminoak itzultzeko edo ezabatzeko joera dagoen aztertzea ere, eta itzultzen badira, terminoen izaera mantendu edo aldatu egiten den ikustea.

Ikus-entzunezko produktuen industriak, orokorrean, eta zinemak, zehazki, inoiz baino garrantzi handiagoa du gizartearen entretenimenduan. Filmek argi islatzen dute askotan gizarteak hitz egiteko duen era, jendeak askotan erabiltzen baitu hizkera tabua lagunartean eta eremu informalean. Chaumek (2004) *ahozkotasun prefabrikatua* terminoa proposatu zuen ikus-entzunezko produktuetan erabiltzen den hizkera hori izendatzeko. Testu horiek aurretik idatziak eta prestatuak daude, baina hala ere, ahoz esatean sinesgarriak dirudite, eta ikusleak ahozko diskurtso natural gisa har ditzake arazorik gabe. Zubillagak (2013) dioten bezala, euskara hizkuntza misto bat da, hizkera informalak gaztelania hartzen duelako harrobitzat, eta hiztunek bi hizkuntzen nahaste bat erabiltzen dute eremu informalean. Hizkera hori arazo bat izan daiteke itzultzailearentzat, eta azken horrek askotan erabaki beharko du nola jokatu: euskarak berak dituen elementuak erabiliz bakarrik itzultzea, edo errealitatean gertatzen den bezala beste hizkuntza batzuen elementuak ere hartzea.

Beraz, eta lehen esan bezala, ikerlana ikus-entzunezko testuetara mugatu da, arlo horretan ageri baita gehienbat hizkera mota hau. Lehenik eta behin, ikus-entzunezko itzulpenaren inguruko bibliografia landuko da. Zehazki, ikus-entzunezko itzulpena, bikoizketa eta hizkera tabua landuko dira, eta azken zati horren barruan hizkera tabua sailkatzeko kategoria batzuk eta termino horiek itzultzeko teknikak aurkeztuko dira. Bigarrenik, aztergaien analisia bukatu ondoren, lortutako emaitzak eman eta aztertu egingo dira. Ondoren, emaitzetatik ateratako ondorioei helduko diegu, eta lanarekin bukatzeko, lanean zehar erabili den bibliografia bilduko da.

## **Aurkibidea**

|   |    |
|---|----|
| 1. Sarrera .....                            | 1  |
| 1.1. Gaiaren justifikazioa .....            | 2  |
| 1.2. Helburuak .....                        | 3  |
| 1.3. Hipotesiak .....                       | 3  |
| 2. Metodologia .....                        | 4  |
| 3. Ikus-entzunezko itzulpena .....          | 5  |
| 3.1. Definizioa eta ezaugarriak.....        | 5  |
| 3.2. Bikoizketa .....                       | 6  |
| 3.3. Euskarazko bikoizketa .....            | 7  |
| 4. Hizkera tabua .....                      | 9  |
| 4.1. Definizioa .....                       | 9  |
| 4.2. Itzulpen-teknikak.....                 | 10 |
| 5. Hizkera tabuaren itzulpen analisia ..... | 12 |
| 5.1. Aztergaien aurkezpena .....            | 12 |
| 5.2. Aztergaien analisia .....              | 13 |
| 5.2.1. <i>Apocalypse Now</i> .....          | 14 |
| 5.2.2. <i>Snatch</i> .....                  | 18 |
| 5.2.3. <i>Gran Torino</i> .....             | 22 |
| 6. Ondorioak .....                          | 27 |
| 7. Erreferentziak.....                      | 29 |
| 8. Eranskinak .....                         | 31 |
| 8.1. <i>Apocalypse Now</i> .....            | 31 |
| 8.2. <i>Snatch</i> .....                    | 37 |
| 8.3. <i>Gran Torino</i> .....               | 47 |

## 1. Sarrera

Gizakion ezaugarri nagusietariko bat komunikatzeko dugun ahalmena da. Eta ez bakarrik gauza sinpleak komunikatzeko ahalmena, baizik eta lexiko eta gramatika zabal eta garatu bat erabiliz ideia konplexuak transmititzeko dugun ahalmena ere.

Baina gure hizkuntzak alde ilun bat ere badauka. Eta hor sar ditzakegu hizkuntza tabua, hizkera soila, isekak eta irainak. Txikitatik esan digute horrelako hitzik ez esateko, eta erabiliz gero, izugarrizko errieta jasotzen genuen. Hala ere, behin haurtzaroa atzean utzita, konturatu gara hizkera mota hori benetan baliagarria dela mezu jakin bat transmititu ahal izateko.

«Tabu» hitzak debekatuta dagoen zerbait gogorarazten digu. Hitzaren jatorria Polinesiar koka dezakegu, bertan erabiltzen baitzen jakiren bat edo objekturen bat arrazoi erlijiosoengatik debekatuta bazegoen. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, «tabu» hitzak «sokratutzat edota ez-garbitzat hartzen denari ezartzen zaion debekua» esan nahi du. Gure arlorra ekarriz, hizkuntzari dagokionez, iraingarriak, mingarriak edo desegokiak diren hitzei atxikitzen zaie termino hori, eta gizartean hizkera mota hori ez dago batere ondo ikusita, askotan kultura gutxiko hizkerarekin lotzen baita.

Baina hori estereotipo bat baino ez da, hitzen erabilera ez baitago lotuta pertsona baten aberastasun lexikoarekin. Izan ere, Jayk eta Jayk egindako ikerketa batean (2015) honako ondorio hau atera zuten: ezaugarri komun bat duten hitzen zerrenda bat sortzeko erraztasun handiagoa zuten pertsonak zirela gai irainen zerrenda zabalago bat egiteko. Horren ondorioz, haiek hizkera tabuaren erabilera hitz-jarioarekin lotu zuten. Sarritan pentsatu izan da isekak pertsona baten pobrezia lexikoaren ondorio direla, eta pertsona horrek «komodin» gisa erabiltzen dituela, testuinguru horretarako hitz zehatzagoak edo egokiak aurkitzen ez dituelako. Autore horiek minutu batean letra jakin batetik hasitako ahalik eta animalia izen gehien izendatzeko eskatu zieten ikerketako boluntarioei, eta, ondoren, ahalik eta iseka gehien idazteko eskatu zieten. Emaitzek korrelazio handia erakutsi zuten bi zereginen artean: lehenengo zerrendan gehien idazten zutenek erraztasun handiagoa zuten bigarren zerrendan iseka gehiago idazteko. Emaitza honek agerian utzi zuen hizkera tabua erabiltzearen arrazoa ez dela erabiltzailearen hizkeran gabezia bat dagoela.

## 1.1. Gaiaren justifikazioa

Lehenik eta behin, gaiaren eta aztergaiaren justifikazioa azaldu nahiko nituzke. Itzulpengintza eta Interpretazioko Graduan zehar zenbait alditan landu izan dugu ikus-entzunezko itzulpengintza, baita hizkuntza aldaeren itzulpengintza gainetik landu ere, baina inoiz ez dugu hizkera tabuaren itzulpen-azterketan sakondu. Horregatik, interesgarria iruditu zitzaidan Gradu Amaierako Lanean oraindik landu gabe nuen gai bat aztertzea, Graduan zehar ikasitako guztia aplikatuz eta nire ondorioak ateraz.

Zinemaren historian milaka film egin dira, gai, mota eta hizkuntza desberdinetakoak. Noski, ezinezkoa da Gradu Amaierako Lan batean itzulpengintzaren atal zehatz baten joera orokorra aztertzea, aztergaia amaigabea izango litzatekeelako; beraz, hautaketa bat egin behar izan dut.

Egia da hizkera tabua aztertzeko hainbat eta hainbat aztergai posible daudela, baina ez dira hainbeste heldu euskarara ikus-entzunezkoen alorrean. Horregatik, lehenik eta behin euskarara bikoiztu diren filmak begiratu nituen *Euskal Encodings* webgunean<sup>1</sup>, eta hurrei zuzenduta zeuden film guztiak baztertu nituen, normalean ikus-entzunezko produktu horietan ez baita hizkera tabua erabiltzen, eta erabiltzen den kasuetan oso neurri txikian da, beraz, ez da nahikoa analisi honetarako aztergai gisa hautatzeko.

Horren ondoren erabaki nuen nik bizi izan ditudan hiru hamarkada ezberdinetan bikoiztu diren filmak hautatzea, hau da, 1990-1999 bitartean bikoiztutako bat, 2000-2009 artean bikoiztutako beste bat eta 2010-2019 artean bikoiztutako azken bat. Horrela, hizkera tabuaren itzulpen-teknikak hamarkada ezberdin horietan zehar aldatu egin diren egiaztatu daiteke. Noski, ezingo da hiru hamarkada horietan zehar itzulpenak izan duen bilakaera aztertu, hamarkada bakoitzeko aztergai gehiago beharko liratekeelako horretarako, baina azterketak joera batzuk identifikatzeko balio dezake. Horregatik aukeratu nituen azkenean *Apocalypse Now* (1990. urtean bikoiztua), *Snatch* (2004an bikoiztua) eta *Gran Torino* (2011. urtean bikoiztua).

---

<sup>1</sup> *Euskal Encodings* 2003an sortutako euskarazko film eta telesailen biltegi bat da. Kideak auzolanean aritzen dira, eta ez dute irabazi asmorik.

## 1.2. Helburuak

Lanaren helburu nagusia, beraz, aurretik aipaturiko hiru filmen itzulpenaren analisi bat egitea da, hizkera tabuaren itzulpenaren ikuspuntutik. Esan bezala, itzulpen horiek ingelesetik euskarara egin dira. Honako hauek izango dira lanaren helburuak, zehazki:

- *Gran Torino*, *Apocalypse Now* eta *Snatch* filmen hizkera tabuaren itzulpena aztertu eta horri buruz hausnartzea.
- Bikoiztutako filmetan hizkera tabuari dagozkion terminoak itzultzeko edo ez itzultzeko joera dagoen zehaztea. Itzultzeko joera badago, gainera, erabilitako teknikak ere aztertuko dira.
- Hiru hamarkada horien artean hautatutako produktuen itzulpenetan alderik dagoen egiaztatzea, batez ere itzulpen-tekniken erabileran.

## 1.3. Hipotesiak

Azterketarekin hasi baino lehen hipotesi batzuk planteatu nahiko nituzke, eta hautaturiko filmen itzulpena aztertzean egiaztatuko dira.

- Lehen hipotesia: aztergai ditugun euskarara bikoiztutako filmetan hizkera tabua ezabatu edo leundu egingo da. Ingelesezko filmetan oso ohikoa da hizkera tabua erabiltzea, baina aurrerago ikusiko dugun bezala, euskarara bikoiztutako filmen arazo nagusia naturaltasun falta da, beraz, euskaraz hizkera «artifizialago» bat erabiliko du ikus-entzunezko produktuetan, eta irudietan agertzen diren egoera informal horiek eskatzen duten hizkera tabua ezabatuko dute.
- Bigarren hipotesia: aztergai ditugun euskarara bikoiztutako filmetan hizkera tabua itzultzeko orduan gaztelaniazko terminoak hartzeko joera dago, maileguen bidez. Zubillagak (2013) bere tesian aipatu bezala, euskarak joera dauka eremu informalean gaztelaniazko terminoak hartzeko. Beraz, ikus-entzunezko produktuek euskal hiztunen errealitatea islatu behar badute, gaztelaniazko terminoak hartu beharko dituzte.
- Hirugarren hipotesia: gaur eguneko filmetan joera dago lehen baino hizkera tabu gehiago sartzeko. Duela urte batzuk zentsura gehiago zegoen ikus-entzunezko produktuetan, baina gaur egun hizkera tabua erabiltzea naturalago ikusten da gizartean, eta gero eta gehiago erabiltzen da filmetan eta telesailetan.

## 2. Metodologia

Lehenik eta behin, gai orokor bat eta hasierako helburu batzuk planteatu ziren, eta horren arabera, lanaren oinarri teorikoa idazteko bibliografia batzen eta lantzen hasi nintzen.

Behin aztergaia aukeratuta, erraza izan zen aztergaien jatorrizko hiru gidoiak lortzea. Interneten bilaketa erraz bat eginda lortu nituen. Euskarazko gidoiak lortzea ez zen hain erraza izan, ez baitago euskarara bikoiztutako filmen inguruan informazio askorik. *Euskal Encodings* web-orrian filmak aurkitu nituen osorik, baina daturik gabe igotzen dituzte, beraz, ezin da jakin noiz edo non bikoiztu ziren. Beraz, lehenik eta behin *Todo el doblaje vasco* web-orriko arduradunarekin kontaktuan jarri nintzen, filmei buruz behar nituen datuak lortzeko, eta gidoiak eskuragarri zeuden jakiteko. Baina ez nuen inoiz erantzunik jaso, ez posta elektronikoko bidez egindako galderari, ezta Twitterren bidez bidalitako mezuari. Beraz, zuzenean EITBri galdetzea erabaki nuen, nahiz eta itxaropen askorik ez izan. Hilabete eta erdi pasatu ondoren erantzun zidaten, eta behar nituen datu gehienak bidali zizkidaten. Hala ere, film bakoitzaren itzultzailea nor izan zen ezin izan dut aurkitu, eta EITBk ere ez zidan datu hori eman.

Euskarazko gidoiak ezin izan nituen lortu, eta horregatik, eskuz idatzi egin behar izan nituen interesatzen zitzaizkidan pasarteak. Horretarako, euskarazko hiru filmak ikusi nituen, ingelesezko gidoia aurrean nuela, eta gidoian hizkera tabua erabiltzen zuten bakoitzean, eskuz transkribatzen nuen euskarazko itzulpena. Horretaz gain, jatorrizko gidoian agertzen ez zen termino taburen bat esaten bazuten euskarazko bertsioan, hori ere apuntatu egiten nuen, aurrerago aipatuko dudako itzulpen-teknika bat erabili baitut kasu horiek aztertzeko: konpentsazioa. Horrela sortu dut hiru filmetan agertzen den hizkera tabuaren corpusa, eta horren arabera sortu ditut eranskinetan kontsulta daitezkeen taulak, non lehen zutabe batean jatorrizko testua jarri dudako, bigarren batean itzulpena, hirugarrenean sarrera bakoitzaren sailkapena eta azkenengoan euskaratzeko orduan itzultzaileak burututako prozesua, hau da, erabilitako itzulpen-teknika. Egia da itzulpen-tekniken sailkapen ugari proposatu direla azken hogeitun urteetan; adibidez, Vinay eta Darbelnet (1995) edo Molina eta Hurtado Albirrek (2002) proposaturikoak, baina lan honetarako Ávila-Cabrera (2015) proposatutako sailkapena hautatu dugu, hori baita lan honetarako baliagarria zaigun sailkapen berriena. Berak azpigituluak egiteko orduan hizkera tabua itzultzeko hamar teknika zerrendatu eta deskribatu zituen. Aipatu beharra dago lan honek ez dituela azpigituluak aztertuko, bikoizketa baizik, baina analisi eta

sailkapen hori egokia iruditu zait bikoizketa aztertzeko ere, eta horregatik erabili dut nire analisisian.

Bukatzeko, film bakoitzak erabili dituen itzulpen-teknikak biltzen dituzten grafikak sortu ditut, erabileraren ehunekoak ateraz, eta horrela modu bisualean ikusiz zein izan diren teknika erabilienak.

### 3. Ikus-entzunezko itzulpena

#### 3.1. Definizioa eta ezaugarriak

Azken urte hauetan, ikus-entzunezko itzulpengintzak izugarritzko gorakada izan du, gero eta eskaera handiagoa baitago ikus-entzunezko produktuei dagokionez. Telebista kate gero eta gehiago ditugu eskura, baita plataforma digital asko ere. Gehienbat, filmak eta telesailak dira gehien itzultzen diren produktuak, baina ez dira bakarrak. Horietaz gain, bideo-jokoak, antzerkia edo publizitatea aurki ditzakegu. Azken urteetan izandako gorakada horren ondorioz, gero eta ikerketa gehiago ditugu eskura ikus-entzunezko itzulpengintzari buruz.

Itzulpengintzaren historian zehar hainbat autorek definitu izan dute ikus-entzunezko itzulpengintza. Pérezen (1998: 13) arabera, ikus-entzunezko itzulpena itzulpen ikasketen adar bat da, eta ikus-entzunezko produktuak beste hizkuntza eta/edo kultura batera transferitzean datza. Horretaz gain, berak dio ikus-entzunezko testuak beste elementu batzuekin sinkronizatuta heltzen zaizkiola ikusleari, zehatz-mehatz irudi eta soinuarekin.

Chaumek (2004), Pérezen bideari jarraituz, bi kanal desberdinen bidez aldi berean informazioa eskaintzen duen itzulpen mota bat dela esan zuen: bai ikusizko kanala (irudiak, azpitoluak) eta baita entzutekoa (musika, efektu bereziak, elkarrizketak) ere. Ikus-entzunezko itzulpena beti dago bi kanal horien menpe, eta horrek eragin handia dauka itzultzeko eran. Horrek desberdintzen du bereziki itzulpen mota hau, ez baita testua bakarrik kontuan hartu behar: kanal horien aldibereko interakzioak sortzen du esanahia duen ikus-entzunezko testu bat.

Ikus-entzunezko itzulpenak modalitate ugari biltzen ditu bere barruan. Ezagunenak lau dira, baina ez dira bakarrak: batetik **bikoizketa** dago, non jatorrizko ahotsak xede-hizkuntza hitz egiten duten beste ahots batzuek ordezkatzen diren; **azpidazketan** jatorrizko audioa mantendu eta xede-hizkuntzan dauden azpitoluak gehitzen ditu; **ahots**



**gainjarrian**, jatorrizko ahotsak bolumen baxu batean mantentzen dira eta aldi berean hitz egiten duten ahotsak txertatzen dira, xede-hizkuntzan; azkenik, **audiodeskripzioan**, ahots eta soinuez gain, elementu bisualak ere bikoizten dira, ikusten denaren deskribapen bat emanez. Azken modalitate hau ikusmen arazoak dituzten pertsonen zuzenduta dago.

### 3.2 Bikoizketa

Aurretik aipatu bezala, lan honetan bikoizketa da landuko dugun itzulpen-modalitatea. Rosa Agosten hitzetan, bikoizketan ikus-entzunezko produktu bateko soinu-banda batek beste bat ordezkatzeko du (Agost, 1999: 16). Ikus-entzunezko modalitate hau argi eta garbi dago xede-kulturara bideratua, eta hiru alderdi izan behar ditu kontuan batez ere (Chaume, 2012):

- **Ezpain-sinkronia:** pantailan agertzen diren pertsonaien ezpain-mugimenduak bat egin behar du testu bikoiztuarekin. Horregatik, testua egokitu behar da, pertsonaien artikulazio-mugimenduekin bat egiteko.
- **Sinkronia zinesikoa:** aktoreen gorputzen mugimenduak bat etorri behar dira itzulitako testuarekin, ezin baita gertatu aktoreak buruarekin baiezko keinua egitea eta gero bikoizketa-aktoreak ezetz esatea.
- **Isokronia:** testua bat etorri behar da aktoreek esaten duten esaldiaren luzerarekin, ahotsa ahoa mugitzen hasi bezain laster entzuten hasi eta ahoa ixten denean isildu behar baita.

Chaumek (2013: 14) esan zuen bikoizketa dela ikus-entzunezko itzulpengintzan dagoen modalitateen artean zaharrena. Pasa den mendeko XX. hamarkadan jarri du bere jatorria, zinemaren historian egin ziren lehen filmak beste herrialde batzuetara esportatu eta beste hizkuntza batzuetara itzuli nahi izan zituztenean.

Bikoizketa prozesuan hainbat pertsonak hartzen dute parte. Lehenik eta behin, **itzultzaileak** gidoia xede-hizkuntzara itzuli behar du, esan dugun bezala irudiak eta soinua kontuan hartuz. Bikoizketa-prozesuaren zati honek garrantzi handia dauka, baina batzuetan itzultzaileak denbora oso gutxian edo baldintza txarretan itzuli behar du, eta horrek azken produktuan eragin zuzena izan dezake. Adibide bezala, azken urte hauetan gertaturiko kasu ezagun bat daukagu: Espainian *Game of Thrones* telesaila itzultzen zutenak kexatu egin ziren, askotan atalak irudi gabe bidaltzen zizkietelako (hau da, audioa baino ez zuten itzulpena egin ahal izateko), edota irudia erdi estalita zegoela, filtrazioak

ekiditeko. Adibide horretan argi ikusi da telesaila eman duten urteetan zehar askotan itzulpen akatsak egin direla.

Behin itzultzaileak itzulpena eginda, **egokitzaileari** tokatzen zaio itzulitako testua jaso eta lantzea. Egokitzaileak, izenak dioen bezala, testua egokitzen du, hau da, pantailan agertzen dena errespetatzen dela ziurtatu eta bikoizketa aktoreei lana erraztu behar die. Askotan, eta batez ere euskara bezalako hizkuntza txikietan, itzultzaileak berak egiten du lan hau. Egokitzaileak egiten du testuaren azken bertsioa, eta berak sartzen du pertsonaiei buruzko informazioa (geldiunerik dagoen, ahotsa *off*-en dagoen, pertsonaiaren ahoa ikusten den...) eta sinboloak. Horretaz gain, egokitzaileak *take*<sup>2</sup>-ka mozten du itzulitako testua.

Behin lan hori eginda, bikoizketa-prozesuaren azken etapa dator, hau da, bikoizketa bera. Bertan **bikoizketa aktoreek** hartzen dute parte, eta testuari ahotsa jarri eta interpretatu egiten dute. Bikoizketa aktoreek *take*-ka kobratzen dute, eta normalean *take* bakoitzak 8 lerro ditu gehienez, eta pertsonaia bakoitzak 5 lerro jarraian izan ohi ditu gehienez. *Take*-ak, normalean, ez dira minutu bat baino gehiagoz luzatzen (Chaume, 2004). Bikoizketa aktoreek ere egoera txarrean egiten dute lan askotan, eta ezagunak dira Espainia mailan izan dituzten greba orokorrak, soldata duin bat eskatuz.

### 3.3. Euskarazko bikoizketa

Euskarazko bikoizketaren sorrera 1980. urteko udazkenean kokatzen dute Josu Barambones eta Beatriz Zabalondok (2006), hau da, ETB sortu baino bi urte lehenago. Euskarazko bikoizketa Euskal Telebistari zerbitzua emateko jarri zen martxan, eta horrek izugarritzko garrantzia izan zuen euskararen sustapenean. Iñaki Zubizarreta hizkuntzalariak ere aipatu izan du hori: «Euskara biziberritzeko, euskararen erabilera sustatzeko, komunikabideak dira autobidea. Komunikabideak oro har: prentsa, irrati, zine, telebista, Internet... Komunikabideek dute lehentasuna zeregin horretan» (Zubizarreta, 2007: 44).

Idea hori aurrera eraman ahal izateko, lehenik eta behin profesionalak behar ziren, eta horregatik, Irrati eta Telebista eskola sortu zen (Barambones, 2006).

---

<sup>2</sup> *Take*-ak ikus-entzunezko gidoi baten zatiak dira. Normalean, egokitzaileak *take*-a noiz hasi eta noiz bukatzen den adierazten du (orduak, minutuak eta segundoak). *Take* bat osatzeko hainbat irizpide jarraitu behar dira (gehienezko lerro kopurua, *take* bakoitzean ager daitezkeen pertsonaiak...).

Euskal Telebista emititzen hasi zenean bi bikoizketa-etxe zeuden martxan: Donostiako Eresoinka S.A. eta Galdakaoko Galdakao Studio. Baina handik hilabete gutxira, Galdakao Studion lan egiten zuten hainbat bikoizle eta egokitzailek beste enpresa bat sortu zuten, Edertrack kooperatiba, alegia. Handik gutxira ere, Galdakao Studio etxea desagertu eta Galdakaon bertan beste egoitza berria zabaldu zuten: K2000. Eresoinka etxeak ere aldaketak jasan zituen, denborarekin Irusoin bihurtu baitzen. Hiru bikoizketa-etxe horiek (Edertrack, Irusoin eta K2000) izan dira EITBren kanpo-produkzioaren bikoizketa gehiena egin dutenak. Baina azken etxe bat aipatu beharra dago, lan honetan aztertuko dugun film bat bikoiztu baitzuen, eta hori Mixer izeneko enpresa da. 2004an sortu zen, Edertrack eta Irusoin batu eta enpresa bakarra sortu zutenean. Aurkitutako azken datuen arabera, gaur egun euskarara bikoizten duten 40-45 bikoizle inguru eta itzulpenak egiten dituzten hogeita bost itzultzaile-egokitzaile inguru daude (Barambones, 2006).

ETBren kezka nagusietako bat emititzen dituzten produktuak erakargarriak izatea izan da, eta askotan programazioa gogor kritikatu izan da bikoiztutako film eta telesailetan erabiltzen duten euskara dela eta. Erabiltzen duten euskara ez dela naturala esan ohi da, eta ez duela benetan kalean hitz egiten den euskara islatzen; euskarara bikoiztu diren produktuak «ulergaitzak, ezerosoak eta sinesgarritasunik gabeak» (Larrinaga, 2003) direla, alegia.

Horren harira, beharrezkoa ikusten dugu laburpenean aipatutako *ahozkotasun fikzionatuaz* aritzea. Esan bezala, Chaumek (2004) termino hori proposatu zuen ikus-entzunezko produktuetan erabiltzen den hizkera izendatzeko. Hizkera mota honek, azken batean, ahozko-hizkera imitatu nahi du, ahoz gora esatean naturalagoa izateko, baina, aldi berean, testu idatzi bat denez, azken testu mota horien ezaugarri ugari izango ditu.

Printzipioz, badirudi itzulpen mota honek ez duela zailtasun berezirik, baina egia esateko *ahozkotasun fikzionatu* hori itzultzea arazo bat izan daiteke ikus-entzunezko itzultzailearentzat, itzulpen egoki bat egiteaz gain naturaltasun hori mantendu beharko duelako.

## 4. Hizkera tabua

### 4.1. Definizioa

Hizkera tabuak gure egunerokotasunean garrantzi handia dauka, kultura eta hizkuntza guztietan, eta bereziki ahozko hizkeran. Hala ere, Mayoralen (2001) esanetan, normalean maila baxuko soziolektoa da, eta konfiantzazko elkarrizketetan erabiltzen da. Izan ere, lagunarteko elkarrizketetan erabiltzen da gehienbat hizkera tabua.

Hainbat termino ezberdin ditugu hizkera mota hau definitzeko: hizkera tabua, zikina, satsua, zatarra, isekak... Baina lan honetan zehar *hizkera tabua* da erabiliko dugun terminoa. Aipatutako termino horiek guztiak antzeko gauzak izendatzen dituzte, baina hizkera tabuaren mundua anbiguotasunez bete dago, eta ez bakarrik hizkera izendatzeko eran. Ez dago argi zer termino sartzan diren hizkera horren barruan, pertsona batek hitz bat oso mingarria edo iraingarria dela uste dezakeelako, eta beste batek ez hainbeste. Anbiguotasun horrek hainbat arrazoi izan ditzake: erabiltzailearen adina, ideologia, jatorria edo hezkuntza, adibidez.

Gutxi ikertu izan da hizkera mota honen itzulpena, eta hiztegiek, corpusek eta gainerako baliabideek ez dute asko laguntzen termino horiek itzultzeko orduan, askotan termino oso neutroak eskaintzen baitituzte, eta horiek askotan ez dute islatzen jatorrizko testuak esan nahi duena (Fontcuberta, 2001: 310).

Beraz, hizkera tabuaren itzulpena benetako erronka bat da itzultzaileentzat, eta orduan itzultzaileak izugarrizko irudimena izan behar du egokia den baliokidea aurkitzeko. Gainera, kontuan izan behar da leku batean tabua den zerbait ez duela zergatik leku guztietan tabua izan behar.

Egokia iruditu zaigu hizkera tabua sailkatzeko jarraibide batzuk ematea, eta Fuentes-Luquek (2015) proposaturiko sailkapena aurkitu dugu. Berak terminoen izaerari erreparatu zion, eta bost kategoria ezberdin zituen: sexua, eskatologia, erlijioa, familia eta nominalia. Kategoria bakoitzean adibide batzuk ere eman zituen, ideia argiago ulertzeko.

- **Sexua:** hemen biltzen dira anatomiari loturiko lizunkeriak, eta esan daiteke hau dela estrategiarik erabiliena ingelesean. Horrelako terminoak izan daitezke *fuck*, *cock* edo *pussy*, adibidez.

- **Eskatologia:** bigarren kategoria honetan sartzen dira gorputzak sorturiko likido eta solidoak, eta baita heriotzarekin zerikusia duen gauza oro ere. Adibidez: *shit*, *piss* edo *asshole*.
- **Erljioa:** Hemen sartzen dira biraoak edo profanazioak. *God*, *Jesus (Christ)* edo *hell* dira adibide batzuk.
- **Familia:** Izenak dioen bezala, hemen norbaiten familiari egiten zaio erreferentzia. Ohikoena *son of a...* esamoldea litzateke.
- **Nominalia:** Azkenik, kategoria honetan izen propio eta kalifikatzaileak erabiltzen dira, baina mespretxuzko asmoarekin, adibidez: *nigga*, *bitch*, *dyke* edo *paki*.

## 4.2. Itzulpen-teknikak

Hizkera tabua itzultzeko joera aldatuz joan da azken urteetan. Lehen ohitura zegoen termino horiek leuntzeko, hitzak omitituz edo neutralizatuz (Castro, 1999). Hala ere, gaur egun ez da hori egiten, eta hizkera tabua xede-testuan itzuli ohi da, gure adibideetan ikusiko dugun bezala. Itzultzeko joera horren eboluzioarekin batera, hainbat autorek sailkatu izan dituzte hizkera tabua itzultzeko teknika ezberdinak. Lan honetako aztergaiak analizatzeko, Ávila-Cabrerak (2015) proposaturiko sailkapena baliatuko dugu. Berak honako hamar itzulpen-teknika hauek deskribatzen ditu:

- **Itzulpen literala:** hitzez-hitzezko itzulpena da, hau da, termino edo esamolde baten itzulpena zuzenean ekartzen da xede-testura, bai gramatikalki eta baita lexikoki ere. Teknika honek ez dakar zailtasun handirik, eta adibide bat jartzearen, ingelesezko *shit* terminoa aipa daiteke, euskaraz *kaka* bezala itzultzen dena.
- **Mailegua:** jatorrizko hizkuntzako termino bat xede-testuan erabiltzean datza. Askotan, termino horren erabilera normalizatu egin da xede-kulturan, eta ikusleak ez du arazorik izango termino hori entzutean, eta ez da ulergaitza izango. Euskaraz gerta liteke mailegua gaztelaniatik hartzea, nahiz eta jatorrizko filma ingelesez izan. Horren adibide bat *ostia* liteke, euskaraz maiz erabiltzen baita, nahiz eta gaztelaniazko ortografia ez errespetatu.
- **Kalkoa:** itzulpen literalak dira, baina ez dute xede-testuan ondo funtzionatzen. Beraz, askotan, kalkoek esanahi faltsuak sorrarazten dituzte.

Ávila-Cabrerak (2015: 12) *Pulp Fiction* filmeko termino bat jartzen du adibide gisa, ingelesezko *wetback* gaztelaniaz *espalda mojada* bezala itzuli baitzen.

- **Esplizitazioa:** teknika honek termino bat zehazteko balio du, xede-kulturak testuaren esanahia era argiago batean eskuratzeko. Esanahi zehatzagoa duen termino bat erabiltzen denean, hiponimoaz ari gara. Ezpain-sinkronia errespetatzeko, adibidez, erabili daiteke teknika hau. Aldiz, esanahi zabalagoa duen termino bat erabiltzen denean, hiperonimoa erabiltzen dela diogu. Adibidez, norbait hilko dela esateko modu ugari daude ingelesez: *blow someone to hell, send to the farm, take out...* Beraz, kasu horietan *hil* bezala bikoizten bada, hiponimo bat erabiltzen ari gara.
- **Ordezkapena:** teknika hau nahiko ohikoa da ikus-entzunezko testuetan, hizkuntza ezberdinen artean hizkera tabuaren parte diren termino askok itzulpena izan dezaketelako, baina itzulpen horrek ez du zergatik baliokidea izan behar. Adibidez, *rat* hitza *traidore* bezala itzuli daiteke, nahiz eta hitz horrek euskaraz itzulpen zuzen bat izan (*arratoi*, alegia).
- **Transposizioa:** teknika honek hizkuntzen arteko desberdintasun kulturelek eragindako hutsuneak betetzen ditu. Horretarako, jatorrizko testuan ezaguna den erreferente bat xede-testuan ezaguna izango den beste erreferente batez ordezkatzen da, bai jatorrizko eta bai xede-publikoak efektu bera sentitzeko. Ávila-Cabrerak (2015: 13) jartzen duen adibidea ingelesezko *the Jap* da, japoniar bati mespretxuz horrela deitzen baitzaio, baina xede-kulturan gerta liteke ohikoagoa izatea txinatarrak erabiltzea mespretxua adierazteko; beraz, terminoa aldatzen da.
- **Birsortze lexikoa:** gerta daiteke ikus-entzunezko produktu batean pertsonaia batek jatorrizko hizkuntzaren ezaugarriak dituen termino bat asmatzea, eta birsortze lexikoaren bidez xede-testuan termino berri bat asmatzen da, xede-hizkuntzaren ezaugarriak kontuan hartuta. Adibidez, lan honetan aztertutako *Gran Torino* filmak *horizto* terminoa erabiltzen du Asiako pertsonak izendatzeko.
- **Konpentsazioa:** lehen aipatu dugun bezala, ikus-entzunezko itzulpenean beti egongo gara irudiaren eta soinuaren menpe. Teknika honetan, itzultzaileak jatorrizko testuan agertzen ez den iseka edo madarikazio bat sartzen du itzulpenean, testuinguruak horrela eskatzen duelako. Beraz, irudian bi pertsona agertzen badira eztabaida sutsu baten erdian, itzultzaileak erabaki dezake madarikazio bat sartzea, indarra emateko. Adibidez, pertsonaia batek beste bat

iraindu ondoren azken honek *What did you say?* esan dezake oso haserre, eta itzultzaileak *Zer ostia esan duzu?* bezala itzuli dezake, aktorearen tonuak eta eszenak berak hori eskatzen duela uste badu.

- **Omisioa edo ezabaketa:** bikoizketaren atalean aipatu bezala, ikus-entzunezko testuen itzulpenean ezpain-sinkronia, sinkronia zinesikoa eta isokronia errespetatu behar dira, eta askotan, batez ere azken hau mantendu ahal izateko, itzultzaileek informazioa ezabatu behar dute. Beraz, itzultzaileak erabaki behar du zein informazio den ezinbestekoa eta zein ez, eta, askotan, hizkera tabua da ezabatu daitekeen gauza bakarra.
- **Birformulazioa:** birformulazioaren bidez, hitz edo egitura linguistiko baten parafrasia egiten da. Horrela, xede-testua era idiomatikoago batean geratuko da, eta xede-kulturaren hobeto ulertuko da. Ávila-Cabrerak (2015: 14) jartzen duen adibidean, pertsonaia batek *you shit in your pants and dive in and swim* esaten du, baina itzultitako bertsioan hori birformulatu eta *beldurrez kakazten bazara, kaka hori jango duzu* esaten du.

## 5. Hizkera tabuaren itzulpen analisia

### 5.1. Aztergaien aurkezpena

Aurretik aipatu bezala, lan hau hiru filmen analisia eginez burutu da: *Apocalypse Now* (Francis Ford Coppola, 1979), *Snatch* (Guy Ritchie, 2000), eta *Gran Torino* (Clint Eastwood, 2008).

*Apocalypse Now* Francis Ford Coppolak zuzendu zuen 1979an, eta Joseph Conrad-en *Heart of Darkness* nobelan oinarrituta dago. Vietnameko gerran kokatzen da filma, nahiz eta liburuko istorioa Afrikan gertatu. Estatu Batuetako marinaren kapitain baten istorioa kontatzen digu, Willard kapitaina, hain zuzen ere. Kanbodiara bidaltzen dute Kurtz izeneko goi-agintari bat hiltzera, burua galdu duela baitiote. Bidean zehar, Willardek Kurtzen historiaren berri izango du, eta pixkanaka gizon horrek burua galtzeko eta hiltzen hasteko dituen arrazoiak ulertuko ditu. Filmak bi Oscar sari irabazi zituen, eta 2000. urtean Estatu Batuetako Kongresuko Liburutegiak *National Film Registry*an gordetzeko aukeratu zuen.

Guy Ritchie zuzendari britaniarraren filma da *Snatch*, 2000. urtekoa. Filmak elkarren artean nahasten diren bi istorio kontatzen ditu: batek lapurtutako diamante baten istorioa kontatzen du, eta besteak boxeoa-apustu ilegalean mundua aztertzen du. Harribitxi hori lortzeko jokoan sartzen dira arma trafikatuak, errusiarrak, estatubatuarak edo juduak, adibidez. Horregatik, erabilitako hizkera guztiz informala da, hitz tabuz bete.

*Gran Torino* da azken filma. Drama estatubatuar hau 2008an zuzendu, ekoiztu eta antzeztu zuen Clint Eastwoodek. Aktoreak ere Kowalski izeneko agure bat interpretatzen du, gerrako beteranoa dena eta emaztea galdu berri duena. Michiganen bizi da, eta azken urteetan immigrante ugari heldu dira, batez ere Asiatik, eta Kowalskik ez du hori batere gustuko. Behin immigrante gazte bat aurkitzen du bere kotxea lapurtzen saiatzen, banda batek presionatu egin baitu hori egitera, eta Kowalskik bai gaztea eta baita bere arreba ere lagunduko ditu banda horretatik aldentzen.

## 5.2. Aztergaien analisia

Atal honetan film bakoitzaren analisia egingo dugu, kronologia-ordenan. Horrela, hamarkadek aurrera egin ahala aldaketarik eta eboluziorik egon den ikusi ahalko dugu.

Lehenik eta behin, film bakoitzeko termino tabuak itzuli diren edo ez ikusiko dugu. Hurrengo taulan ikusten den bezala, desberdintasun handia dago omisioari dagokionez, 1990-1999 bitarteko filmean (*Apocalypse Now*) 85 terminotik 53 omititu baitira, hau da, terminoen % 62,35 ez da euskarazko bertsioan eman. *Snatch*en, hau da, 2000-2010 bitarteko filmean, 152 terminotik 19 baino ez dira omititzen, hau da, % 11,95. Lehenengo filmarekin konparatuz izugarriko desberdintasuna nabari dezakegu, omisioak behera egin baitu, baina hirugarren hamarkadan beheranzko joera hori eten eta berriro igotzen dira omititutako terminoak, nahiz eta lehenengo filmak duen omisio-ehunekotik oso urrun gelditu. Alegia, *Gran Torino* 127 terminotik 32 omititzen ditu, hau da, % 25,4.

| Filma                 | Terminoak guztira | Omititutako terminoak | Omisioa |
|-----------------------|-------------------|-----------------------|---------|
| <i>Apocalypse Now</i> | 85                | 53                    | % 62,35 |
| <i>Snatch</i>         | 152               | 19                    | % 11,95 |
| <i>Gran Torino</i>    | 127               | 32                    | % 25,4  |

Taula 1. Omititutako termino kopurua hiru aztergaietan



Jarraian, termino tabu guztiak<sup>3</sup> aurretik aipaturiko Fuentes-Luquen (2015) sailkapenaren arabera bilduko ditugu eta, amaitzeko, Ávila-Cabrerak proposaturiko itzulpen-teknikak baliatuz, grafiko batean ikusiko dugu zer teknika erabili diren.

### 5.2.1. *Apocalypse Now*

Esan bezala, aztertutako lehen filma *Apocalypse Now* dugu, 90. hamarkadakoa. Guztira, 85 termino dira filmean agertzen direnak. Gehienak sexu-terminoak dira, 45 alegia, eta taulan ikusten den bezala, *fuck* eta  *fucking* terminoak dira gehien erabiltzen direnak. Lehen hamarkada honetan argi ikusten da hizkera tabua omititu edo ezabatu egiten dela, 45 sexu-termino horietatik 27 guztiz ezabatu baitira.

| EN                  | Agerraldiak | EU             | Agerraldiak |
|---------------------|-------------|----------------|-------------|
| <b>Ass</b>          | 4           | Ipurdia        | 1           |
|                     |             | Popa           | 1           |
|                     |             | <b>Omisioa</b> | 2           |
| <b>Fuck(ing)</b>    | 31          | Kaka           | 1           |
|                     |             | Alua           | 1           |
|                     |             | Madarikatu     | 1           |
|                     |             | Putakeria      | 1           |
|                     |             | Kabroia        | 1           |
|                     |             | Potroak        | 1           |
|                     |             | Putakume       | 1           |
|                     |             | Arraioa        | 2           |
|                     |             | <b>Omisioa</b> | 22          |
| <b>Motherfucker</b> | 4           | Sasikume       | 1           |
|                     |             | Putakume       | 1           |
|                     |             | Potroak izan   | 1           |
|                     |             | <b>Omisioa</b> | 1           |
| <b>Balls</b>        | 3           | Potroak        | 1           |
|                     |             | <b>Omisioa</b> | 1           |

<sup>3</sup> Lanean zehar terminoak bakarrik jaso dira, baina eranskinean termino horiek testuinguruan kontsulta daitezke.

|                       |   |                |   |
|-----------------------|---|----------------|---|
| <b>Fucker</b>         | 1 | <b>Omisioa</b> | 1 |
| <b>Where the fuck</b> | 1 | <b>Omisioa</b> | 1 |
| <b>What the fuck</b>  | 1 | <b>Omisioa</b> | 1 |

Taula 2. *Apocalypse Now* filmeko sexu-terminoak

Eskatologiari helduz, *Apocalypse Now* filmean 15 termino erabiltzen dira, eta horietako gehienetan (8) *shit* edo hitz horretatik eratorritako besteren bat erabili da. Aurreko atalean gertatu bezala, hamarkada honetan omisioa erabili da gehienbat filma itzultzeko orduan, 15 termino horietatik 9 omititu baitira.

| EN              | Agerraldiak | EU             | Agerraldiak |
|-----------------|-------------|----------------|-------------|
| <b>Shit</b>     | 8           | Kaka zaharra   | 1           |
|                 |             | Mokordo        | 1           |
|                 |             | Kaka           | 2           |
|                 |             | <b>Omisioa</b> | 4           |
| <b>Shithole</b> | 1           | <b>Omisioa</b> | 1           |
| <b>Shitty</b>   | 2           | Madarikatu     | 1           |
|                 |             | <b>Omisioa</b> | 1           |
| <b>Crap</b>     | 1           | <b>Omisioa</b> | 1           |
| <b>Asshole</b>  | 3           | Ipurdiko zuloa | 1           |
|                 |             | <b>Omisioa</b> | 2           |

Taula 3. *Apocalypse Now* filmeko eskatologia-terminoak

Ingelesezko ikus-entzunezko testuetan ohikoa da pertsonaien ahoetatik *Jesus*, *God* edo antzeko erlijio-terminoak entzutea. Gure lehen filmak oso termino gutxi ditu kategoria honetan, 7 bakarrik, eta interesgarria da ikustea horietatik 5 omititu direla, eta gainerakoak ez direla inoiz euskarazko erlijio-terminoz itzuli.

| EN                 | Agerraldiak | EU             | Agerraldiak |
|--------------------|-------------|----------------|-------------|
| <b>Goddamn</b>     | 6           | Kakatiok       | 1           |
|                    |             | Coño           | 1           |
|                    |             | <b>Omisioa</b> | 4           |
| <b>Holy Christ</b> | 1           | <b>Omisioa</b> | 1           |

Taula 4. *Apocalypse Now* filmeko erlijio-terminoak

Familia kategoriako terminoei helduz, *Apocalypse Now* filmean termino hauek dira gutxien erabili direnak, istorio osoan zehar bi aldiz baino ez baitira erabili. Biak izan dira *son of a bitch* terminoa, eta euskaraz behin omititu eta beste behin baliokide literala erabiliz itzuli da, taulan ikusi bezala.

| EN                    | Agerraldiak | EU             | Agerraldiak |
|-----------------------|-------------|----------------|-------------|
| <b>Son of a bitch</b> | 2           | Putakumea      | 1           |
|                       |             | <b>Omisioa</b> | 1           |


Taula 5. *Apocalypse Now* filmeko familia-terminoak

Azkenik, nominalia kategorian, *Apocalypse Now* filmean guztira 12 termino erabiltzen dira, baina gehienak ez dira euskarazko bertsiora heldu, 8 omititu egin baitira.

| EN                | Agerraldiak | EU             | Agerraldiak |
|-------------------|-------------|----------------|-------------|
| <b>Damn</b>       | 4           | <b>Omisioa</b> | 4           |
| <b>Slope</b>      | 1           | <b>Omisioa</b> | 1           |
| <b>Bitch</b>      | 1           | <b>Omisioa</b> | 1           |
| <b>Dickhead</b>   | 1           | <b>Omisioa</b> | 1           |
| <b>Cherry boy</b> | 1           | Marikoia       | 1           |
| <b>Nigga</b>      | 2           | Beltza         | 1           |
|                   |             | <b>Omisioa</b> | 1           |
| <b>Bastard</b>    | 1           | Sasikume       | 1           |
| <b>Gook</b>       | 1           | Ekialdekoak    | 1           |

Taula 6. *Apocalypse Now* filmeko nominalia-terminoak

Goiko emaitzak aztertu ondoren, argi ikusten da 1990 eta 1999 urteen bitartean itzulitako filmean, gure kasuan *Apocalypse Nown*, hizkera tabu gehiena omititu egiten dela, eta euskarak hizkera horren erdia baino gehiago galdu duela. Erabilitako gainerako itzulpen-teknikei dagokionez, beheko grafikan film honetan erabilitako teknikak ikus ditzakegu, eta datuak aztertuz, 85 terminotik 53 omititu dira, hau da, terminoen % 62,35 euskaraz ez da jaso. Horrek galera handia suposatzen du euskarazko bertsioan, filmak orokorrean hizkera mota honen erabilera eskatzen baitu, eta euskaraz ez ematean tonua nabarmen leuntzen da.



Grafikoa 1. Itzulpen-teknikak *Apocalypse Now* filmean

Adibide bezala, hizkera tabua omititu den esaldi batzuk jaso ditugu:

| EN  | EU                                     | Sailkapena  |
|---|--|-------------|
| You're from <b>Goddamn</b> New Jersey.              | New Jersey-koa zara                    | Erlijioa    |
| Let's kill all the <b>assholes!</b>                 | Akabatu itzazue denak!                 | Eskatologia |
| Concussion suck the air outta ya <b>damn</b> lungs. | Leherketak aire guztia xurgatzen dizu. | Nominalia   |
| Just <b>fucking</b> rice, that's all!               | Arroza baino ez dago!                  | Sexua       |

Taula 7. Omisioa *Apocalypse Now* filmean

Gehien erabilitako bigarren teknika ordezkapena izan da (% 20), azken finean ingelesa eta euskara jatorri ezberdineko hizkuntzak direlako, eta zaila delako hizkera tabua itzulpen literala baliatuz itzultzea. Hona hemen adibide batzuk:

| EN                                 | EU                                   | Sailkapena  |
|------------------------------------|--------------------------------------|-------------|
| You <b>cherry boy!</b>             | <b>Marikoi</b> halakoa!              | Nominalia   |
| This whole, <b>shitty</b> country. | Herri <b>madarikatu</b> honetan.     | Eskatologia |
| 38 <b>fucking</b> years old.       | 38 urte zituen <b>putakumeak.</b>    | Sexua       |
| Them <b>bastards</b> attacked us!  | <b>Sasikumeok</b> eraso egin digute! | Nominalia   |

Taula 8. Ordezkapena *Apocalypse Now* filmean

8.1 eranskina arretaz aztertuz gero, ikus daiteke itzulpen literala bereziki erabili dela gorputzeko atalak (*ass, balls*) edo eskatologia (*shit*) itzultzeko, horiek baitira baliokide literala aurkitzeko errazenak.

### 5.2.2. *Snatch*

Gure bigarren filmak 152 termino ditu guztira, aurreko hamarkadarekin konparatuz askoz gehiago, eta benetan nabarmentzen dira sexu-terminoak. Horiek dira film honetan gehien ageri direnak, 110 ageri baitira guztira, hau da, film osoan aurkitutako hizkera tabuaren termino guztien % 68 dira kategoria honetan sartzen direnak. Aurreko hamarkadako filmean gertatu bezala, *fuck* eta  *fucking* dira gehien errepikatzen diren terminoak.

| EN               | Agerraldiak | EU                    | Agerraldiak |
|------------------|-------------|-----------------------|-------------|
| <b>Fuck(ing)</b> | 72          | Alu puta              | 1           |
|                  |             | Zakurraren putza      | 1           |
|                  |             | Petral                | 1           |
|                  |             | Astapotroa            | 1           |
|                  |             | Madarikatua           | 1           |
|                  |             | Kaka zaharra          | 2           |
|                  |             | Arraioa               | 2           |
|                  |             | Babalorea             | 2           |
|                  |             | (Pu)taseme            | 4           |
|                  |             | Popatik hartzera joan | 4           |
|                  |             | Alua                  | 6           |
|                  |             | Joder                 | 7           |
|                  |             | Ostia                 | 12          |
|                  |             | Puta                  | 13          |
| <b>Omisioa</b>   | 15          |                       |             |
| <b>Fucker</b>    | 5           | (Pu)taseme            | 1           |
|                  |             | Madarikatua           | 1           |
|                  |             | Alua                  | 1           |
|                  |             | <b>Omisioa</b>        | 2           |

|                          |   |                  |   |
|--------------------------|---|------------------|---|
| <b>Fucked</b>            | 6 | Izorratuta       | 4 |
|                          |   | <b>Omisioa</b>   | 2 |
| <b>Bash the fuck out</b> | 1 | Txikitu          | 1 |
| <b>What the fuck</b>     | 6 | Ze arraio        | 2 |
|                          |   | Za ostia         | 4 |
| <b>Why the fuck</b>      | 1 | Ze arraiogatik   | 1 |
| <b>Who the fuck</b>      | 4 | Nor ostia        | 2 |
|                          |   | Nor arraio       | 2 |
| <b>Moherfucker</b>       | 1 | Putaseme         | 1 |
| <b>Bollocks</b>          | 7 | Alu puta         | 1 |
|                          |   | Kaka zaharra     | 1 |
|                          |   | Popatik hartzera | 1 |
|                          |   | Joder            | 1 |
|                          |   | Barrabilak       | 3 |
| <b>Balls</b>             | 2 | Barrabiltxo      | 2 |
| <b>Arsehole</b>          | 1 | Ipurtzulo        | 1 |
| <b>Arse</b>              | 1 | Ipurdia          | 1 |
| <b>Foreskin</b>          | 1 | Prepuzio         | 1 |
| <b>Dick</b>              | 1 | Zakila           | 1 |
| <b>Wanker</b>            | 1 | Babalorea        | 1 |

Taula 9. *Snatch* filmeko sexu-terminoak

Eskatologia kategorian, *Snatch* filmak 6 termino baino ez ditu biltzen, baina ez du bat ere ez omititzen. Termino gehienak itzulpen-literala baliatuz itzuli dira, aurretik aipatu bezala horiek baitira errazenak literalki itzultzen.

| EN             | Agerraldiak | EU          | Agerraldiak |
|----------------|-------------|-------------|-------------|
| <b>Shit(e)</b> | 4           | Kaka        | 3           |
| <b>Pigshit</b> | 1           | Txerri-kaka | 1           |
| <b>Crap</b>    | 1           | Putakume    | 1           |

Taula 10. *Snatch* filmeko eskatologia-terminoak

Bigarren filmak ere, aurrekoak bezala, oso erlijio-termino gutxi biltzen ditu, 6 baino ez. Baina aurreko kategorietan ikusi bezala, omisioari dagokionez ezberdintasun handia dago lehenengo filmarekin konparatuz, kasu honetan ez baita terminorik omititzen.

| EN                 | Agerraldiak | EU          | Agerraldiak |
|--------------------|-------------|-------------|-------------|
| <b>Jesus</b>       | 3           | Ostra       | 1           |
|                    |             | Jainkoa     | 1           |
|                    |             | Joder       | 1           |
| <b>Jeez</b>        | 1           | Joder       | 1           |
| <b>God's sake</b>  | 1           | Joder       | 1           |
| <b>Virgin Mary</b> | 1           | Ama Birjina | 1           |

Taula 11. *Snatch* filmeko erlijio-terminoak

Familia kategoriari helduz, *Snatch* ez da era horretako terminorik erabiltzen. Horrek atentzioa ematen du, ingelesez *son of a bitch* bezalako esamoldeak oso ohikoak baitira.


Nominalia kategorian *Snatch* ez dira termino asko jasotzen, 13 besterik ez, baina aurreko kategorietan gertatu den bezala, *Apocalypse Now* filmak baino termino gehiago mantentzen ditu itzulpenean, eta kasu honetan ez du terminorik omititu.

| EN             | Agerraldiak | EU       | Agerraldiak |
|----------------|-------------|----------|-------------|
| <b>Bastard</b> | 7           | Alu      | 3           |
|                |             | Putaseme | 4           |
| <b>Cunt</b>    | 2           | Alu      | 1           |
|                |             | Putaseme | 1           |
| <b>Idiot</b>   | 1           | Inozo    | 1           |
| <b>Stupid</b>  | 2           | Zakila   | 2           |
| <b>Fairy</b>   | 1           | Marikoia | 1           |

Taula 12. *Snatch* filmeko nominalia-terminoak

Bigarren hamarkada honetan hizkera tabua itzultzeko tekniken erabilera asko aldatzen da. Beheko grafikoan ikusiko dugun bezala, ordezkapena da gehien erabiltzen den teknika (% 48,43), ia terminoen erdia itzultzeko erabili baita. Ávila-Cabrera (2014) aipatzen du lehen hizkera tabu gehiena omititu egiten zela, baina gaur egun estrategia hau oso erabilia dela hizkera tabua itzultzeko, hizkuntza ezberdinen artean desberdintasun handiak

baitaude hitz egiteko eta iseka egiteko eran. Horregatik, itzultzaileak helburu-hizkuntzan antzeko efektua sortuko duen iseka bat bilatu ohi du.



Grafikoa 2. Itzulpen-teknikak *Snatch* filmean

Hona hemen ordezkapen hori ikusteko adibide batzuk:

| EN                           | EU                            | Sailkapena  |
|------------------------------|-------------------------------|-------------|
| You hairy <b>fucker</b> .    | Ile-bola <b>madarikatua</b> . | Sexua       |
| <b>Jeez</b> , it's flawless. | <b>Joder</b> , perfektua da.  | Erljioa     |
| Oh, you <b>bastard</b> .     | Ah, <b>putasemea</b> .        | Nominalia   |
| You piece of <b>crap</b> .   | <b>Putakume</b> arraioa.      | Eskatologia |

Taula 13. Ordezkapena *Snatch* filmean

Ordezkapena alde batera utzita, itzulpen literala (% 21,38) eta omisioa (% 11,95) dira jarraian gehien erabili diren teknikak, baina askoz neurri txikiagoan. Orain arte, eboluzio argi bat ikusi da 1990-1999 arteko eta 2000-2009 arteko filmen artean: omisioak behera egin du, eta ordezkapenak hartu du bere lekua. Hala ere, hiru teknika erabilienak beti dira itzulpen literala, omisioa eta ordezkapena.



### 5.2.3. Gran Torino

Azken filmak 127 termino ditu guztira, baina nabarmen jaitsi dira sexu-terminoak, guztira 51 baino ez baitaude. Aurreko bi filmekin gertatu bezala, *fuck* eta  *fucking* terminoak dira erabilienak, eta era guztietako baliokideak erabili dituzte euskarazko bertsioan. Omisioen aldetik, aipatzekoa da *fuck* eta  *fucking* guztien ia erdia omititu dela, baina gainerako terminoekin ez da fenomeno hori errepikatu.

| EN                   | Agerraldiak | EU                 | Agerraldiak |
|----------------------|-------------|--------------------|-------------|
| <b>Ass</b>           | 7           | Atzetik (izorratu) | 2           |
|                      |             | Ipurdia            | 4           |
|                      |             | <b>Omisioa</b>     | 1           |
| <b>Fuck(ing)</b>     | 29          | Atzetik eman       | 1           |
|                      |             | Pikutara           | 1           |
|                      |             | Atzetik izorratu   | 1           |
|                      |             | Izor (hadi)        | 1           |
|                      |             | Kabroi             | 1           |
|                      |             | Joder              | 1           |
|                      |             | Madarikatua        | 1           |
|                      |             | Jesus Maria        | 1           |
|                      |             | Popatik hartzera   | 2           |
|                      |             | Puta               | 3           |
|                      |             | <b>Omisioa</b>     | 16          |
| <b>What the fuck</b> | 5           | Ze ostia           | 1           |
|                      |             | Zer deabru         | 2           |
|                      |             | <b>Omisioa</b>     | 2           |
| <b>Motherfucking</b> | 1           | Putakume           | 1           |
| <b>Motherfucker</b>  | 3           | Putakume           | 1           |
|                      |             | Sasikume           | 1           |
|                      |             | <b>Omisioa</b>     | 1           |
| <b>Fucker</b>        | 1           | Putakumea          | 1           |
| <b>Fucked</b>        | 2           | Zirikatu           | 1           |

|                 |   |           |   |
|-----------------|---|-----------|---|
|                 |   | Astapotro | 1 |
| <b>Testicle</b> | 1 | Potroak   | 1 |
| <b>Balls</b>    | 1 | Potroak   | 1 |
| <b>Dick</b>     | 1 | Buztana   | 1 |

Taula 14. *Gran Torino* filmeko sexu-terminoak

2009-2019 bitarteko filmean berriro egiten du gora eskatologia-terminoen erabilerak, eta lau baino ez dira omititzen. Deigarria da *shit* terminoa itzultzeko 7 baliokide desberdin eman direla euskaraz, eta aurreko filmetan baino aniztasun handiagoa dagoela, beste bi adibideetan *kaka zaharra*, *kaka* eta *mokordo* hitzak baino ez baitira erabili.

| EN              | Agerraldiak | EU             | Agerraldiak |
|-----------------|-------------|----------------|-------------|
| <b>Shit</b>     | 12          | Txerrikeria    | 1           |
|                 |             | Kakatza        | 1           |
|                 |             | Ostia          | 1           |
|                 |             | Ostia puta     | 1           |
|                 |             | Inozokeria     | 1           |
|                 |             | Bekorotza      | 1           |
|                 |             | Kaka zaharra   | 2           |
|                 |             | <b>Omisioa</b> | 4           |
| <b>Bullshit</b> | 1           | Kaka mokordoa  | 1           |
| <b>Dipshit</b>  | 1           | Astapotroa     | 1           |
| <b>Asshole</b>  | 1           | Astapotroa     | 1           |

Taula 15. *Gran Torino* filmeko eskatologia-terminoak

*Gran Torino* filma da erlijio-termino gehien erabiltzen duen filma, erlijioak pisu handia baitu filmaren garapenean. Guztira 11 termino aurkitu ditugu, eta bi baino ez dira omititu. Filmaren protagonista agure bat izanik, normala da termino hauek erabiltzea, gazteek ez baitute horrelako hizkera ia erabiltzen.

| EN                  | Agerraldiak | EU               | Agerraldiak |
|---------------------|-------------|------------------|-------------|
| <b>Jesus</b>        | 4           | Jainko arren     | 2           |
|                     |             | <b>Omisioa</b>   | 2           |
| <b>God</b>          | 1           | Jainko arren     | 1           |
| <b>Jesus Christ</b> | 4           | Jesus Jaungoikoa | 1           |

|                          |   |                       |   |
|--------------------------|---|-----------------------|---|
|                          |   | Jainko arren          | 3 |
| <b>Holy shit</b>         | 1 | Ostia puta            | 1 |
| <b>Christ all Friday</b> | 1 | Jesus, Maria eta Jose | 1 |

Taula 16. *Gran Torino* filmeko erlijio-terminoak

Berriz ere, familiaren kategorian *Gran Torino* filmak ditu termino gehien. *Son of a bitch* terminoa, hizkera tabuaren barruan familia-terminorik erabiliena, 9 aldiz agertzen da, eta euskaraz 5 baliokide desberdin erabili dituzte. Hala ere, harritzekoa da itzulpen literala eginez edonori bururatuko litzaiokeen terminoa, *putakumea*, ez dela behin ere ez erabiltzen.

| EN                    | Agerraldiak | EU            | Agerraldiak |
|-----------------------|-------------|---------------|-------------|
| <b>Son of a bitch</b> | 9           | Ostia puta    | 1           |
|                       |             | Kabroi zekena | 1           |
|                       |             | Kabroia       | 1           |
|                       |             | Arraioa       | 1           |
|                       |             | Sasikumea     | 5           |

Taula 17. *Gran Torino* filmeko familia-terminoak


Analisiarekin bukatzeko, *Gran Torinok* erabiltzen dituen nominalia-terminoak ikusiko ditugu. Aipatu beharra dago kategoria honetan aurkitu ditugula itzulpen interesgarrienak, filmean Asiako pertsonak mespretxatzeko termino ugari agertzen baitira. Ingeleseko *zipperhead*, *chink*, *gook* edo *slope* euskaratzeko, itzultzaileak *talomutur*, *horiztu/horizto*, *begi-okar* eta *limoi-buru* hitzak aukeratu ditu. Horien artean *talomutur* edo *limoi-buru* terminoak deigarriak dira, ez baitugu interneten termino horiek erabiltzen dituen beste produkturik aurkitu. Beraz, suposatzen dugu itzultzaileak asmatutako terminoak direla. Guztira 38 termino bildu ditugu, aurreko bi hamarkadetako filmetan baino askoz gehiago.

| EN            | Agerraldiak | EU        | Agerraldiak |
|---------------|-------------|-----------|-------------|
| <b>Prick</b>  | 3           | Kabroi    | 1           |
|               |             | Putakume  | 1           |
|               |             | Sasikume  | 1           |
| <b>Spook</b>  | 1           | Beltzingo | 1           |
| <b>Stupid</b> | 3           | Txepel    | 1           |
|               |             | Astaburu  | 1           |

|                     |   |                 |   |
|---------------------|---|-----------------|---|
|                     |   | Mozolo          | 1 |
| <b>Idiot</b>        | 1 | Inozo           | 1 |
| <b>Moron</b>        | 1 | Inozo           | 1 |
| <b>Pussy</b>        | 8 | Kakati          | 2 |
|                     |   | Maritxu         | 5 |
|                     |   | <b>Omisioa</b>  | 1 |
| <b>Swamp rat</b>    | 3 | Txakurjale      | 1 |
|                     |   | Uretako arratoi | 2 |
| <b>Bitch</b>        | 7 | Marikoia        | 1 |
|                     |   | Urdanga         | 2 |
|                     |   | Puta            | 2 |
|                     |   | <b>Omisioa</b>  | 2 |
| <b>Beaner</b>       | 1 | Txikano         | 1 |
| <b>Chinito</b>      | 1 | Txinito         | 1 |
| <b>Chink(s)</b>     | 2 | Talomutur       | 2 |
| <b>Gook</b>         |   | Horiztu         | 2 |
|                     |   | <b>Omisioa</b>  | 1 |
| <b>Slope</b>        | 2 | Begi-okar       | 1 |
|                     |   | <b>Omisioa</b>  | 1 |
| <b>Zipp(er)head</b> | 5 | Limoi-buru      | 1 |
|                     |   | Horizto         | 1 |
|                     |   | Talomutur       | 3 |

Taula 18. *Gran Torino* filmeko nominalia-termينوak

Hirugarren hamarkadarekin (2010-2019) bukatzeko, *Gran Torino* filmean erabilitako itzulpen-teknikak aztertuko ditugu. Aurreko bi kasuetan gertatu bezala, ordezkapena, omisioa eta itzulpen literala dira teknika erabilienak. *Gran Torino* ordezkapena erabiltzen du gehienbat, baina omisioak pisu handia hartzen du baita ere. Beraz, ez da aurreko bi hamarkaden artean egon den omisioaren gutxitze hori ikusten, azken hamarkadan berriro egiten baitu gora, nahiz eta teknika erabiliena ez izan.



Grafikoa 3. Itzulpen-teknikak *Gran Torino* filmean

Era berean, aipatzekoa da film honek birsortze lexikoa erabiltzen duela kasu ugarian. Aurreko filmetan ez dugu teknika hori behin ere ikusi, baina analisisian aipatu bezala, film honek termino ugari erabiltzen ditu Asiatic datozen immigranteak izendatzeko. Benetan interesgarria da *talomutur* terminoa, film honetan baino ez baita erabili, eta beraz, itzultzaileak berak asmatutako terminoa dela ondoriozta daiteke. Labayru Hiztegiaren arabera, *talo* hitzak zanpatuta edo laututa dagoen zerbaiti egiten dio erreferentzia, beraz, Asiako pertsonak izendatzeko erabiltzen dute filmean, haien sudurrak txikiagoak eta lauagoak direlako. Adibideetan ikusiko dugun bezala, euskaraz erabiltzen diren terminoek alderdi fisikoari egiten diote erreferentzia, batez ere begiei, sudurrari edo azalaren koloreari. Hurrengo taulan adibideak testuinguruan ikus daitezke:

| EN   | EU  | Sailkapena |
|--|---|------------|
| What the hell did <b>Chinks</b> have to move into this neighborhood for? | Zertara datoz gure auzora <b>talomutur</b> hauek? | Nominalia  |
| I've got more in common with these <b>gooks</b> (...)                    | Hobeto ulertzen naute <b>horiztu</b> hauek (...)  | Nominalia  |
| All you <b>slopes</b> are supposed to be good at math.                   | <b>Begi-okarrok</b> onak omen zarete matematikan. | Nominalia  |

Taula 19. Birsortze lexikoa *Gran Torino* filmean

## 6. Ondorioak

Lan honen hasierako helburuak hiru izan dira: aztertutako hiru hamarkadetako produktuen hizkera tabuaren itzulpena aztertzea, hizkera tabuaren parte diren terminoak itzultzeko edo ezabatzeke joera dagoen ikustea eta, era berean, film bakoitzean gehien erabili diren itzulpen-teknikak zeintzuk izan diren ikertzea. Gainera, ikus-entzunezko itzulpenaren, bikoizketaren eta hizkera tabuaren inguruko oinarri teoriko batzuk eman ditugu.

Hiru filmak arretaz aztertu ondoren, argi dago lanaren hasieran egindako lehen hipotesia bete egin dela. Euskarara bikoiztutako hiru film hauetan jatorrizko hitz tabu asko ezabatu egin dira (% 62,35; % 11,95 eta % 25,4 hurrenez hurren), eta hiru filmetan dago omisioa erabilitako hiru teknika nagusien artean. Horrek, azken finean, ez du batere laguntzen ikus-entzunezko produktuek izan beharko luketen naturaltasun hori lortzen, arraroa egiten baita filmek erakusten dituzten egoera informaletan pertsonaiek askotan hitz taburik ez erabiltzea. Ez dugu aurkitu terminoak itzuli edo omititzeko irizpiderik, badirudi itzultzaileak era arbitrarioan egin duela aukera, agian ezpain-sinkronia errespetatzeak izan baitu pisu handiena eta horregatik kendu ditu hitz tabuak.

Gure bigarren hipotesiari dagokionez, bikoizketaren atalean ikusi dugu Zubillagak (2013) aipatu zuela joera dagoela euskaraz gaztelaniazko terminoak erabiltzeko. Hala ere, gure kasuan, hiru film hauek ia ez dute mailegua erabili itzultzeko. Mailegatutako hiru terminoak *ostia*, *coño* eta *joder* izan dira, baina esan bezala, oso neurri txikian. Horren ordez, itzulpen literala eta ordezkapena erabili dira baliokideak bilatzeko, eta bikoiztutako filmek emaitza ona lortu dute estrategia honekin, mailegua erabili gabe. Lan honen helburua ez da izan itzulitako produktuen kalitatearen ebaluazio bat egitea, baina aztergai interesgarria izan daiteke hori, eta horregatik honako galdera hau botatzen dut: benetan beharrezkoa al da maileguaz baliatzea ikus-entzunezko produktuak itzultzeko, edo euskarak berak dituen baliabideekin emaitza oso egokiak lor ditzakegu?

Hirugarren eta azken hipotesiari helduz, egia da gaur egun joera handiagoa dagoela hizkera tabua itzultzeko. Ikusi dugun bezala, *Apocalypse Now* filmean, 1990. urtean itzulitakoan, hitz tabuen % 62,35 omititzen da. Bigarren hamarkadan omisio hori nabarmen jaisten da, % 11,95 izan arte, eta aztertutako azken hamarkadan, *Gran Torinon* % 25,4 omititzen da. Beraz, esan dezakegu baietz, aztertutako filmen arabera gaur egun hizkera tabua euskaratzeko joera handiagoa dagoela, baina ezinezkoa da hamarkada

bakoitzean euskaratutako lagin bat bakarrik hartuz hizkuntza baten bikoizketa osorik aztertzea eta ondorioak ateratzea.

Hizkera tabuaren itzulpenaren analisisian zehar, badira atentzioa eman didaten hainbat alderdi. Oso deigarria da kategoria bakoitzeko terminoak desberdin itzuli direla hamarkadetan zehar. Adibide argiena *erlijioa* kategorian aurki dezakegu. Lehenengo filmean, itzulpenak izan duen joera orokorrari jarraituz, termino gehienak omititu egin dira, eta gainerakoak ez dira inoiz euskarazko erlijio-terminoz itzuli. Antzekoa gertatzen da *Snatch* filmean, termino gehienak ez direlako erlijio-terminoz ordezkatu. Aldaketa handia ikusten da *Gran Torinon*, termino bat izan ezik beste guztiak erlijio-terminoz itzuli baitira. Azken film horrekin jarraituz, aipatu beharra dago *Gran Torinoren* itzulpenean aurki dezakegula aniztasun handiagoa, eta ez bakarrik aipaturiko erlijio kategorian, baizik eta gainerakoetan ere. *Shit* terminoa itzultzeko 7 baliokide desberdin aurkitu ditugu, eta inoiz ez da *kaka* bezala itzuli, baizik eta beste baliokide batzuk erabiliz ordezkatu da. Aldi berean, *son of a bitch* itzultzeko 5 baliokide eman dituzte, eta bat baino ez da itzulpen literala (*sasikumea*). Film horretan ere aurki ditzakegu itzulpen originalenak, analisiaren *nominalia* atalean ikusi dugun bezala. Itzultzailearen sormen-lana ikaragarria izan da film honetan ageri diren termino arrazistak itzultzeko, eta oso emaitza interesgarriak lortu ditu.

Beraz, Gradu Amaierako Lan honi bukaera emango diogu, argi utziz lanaren mugak direla medio hamarkada bakoitzeko aztergai bat bakarrik hartu behar izan dugula, eta beraz ezin dugula 30 urte horietan zehar euskarazko ikus-entzunezko itzulpengintzak izan duen eboluzioa eta itzulpen-joera osorik aztertu. Gure helburu nagusia hizkera tabuaren itzulpenari buruz aritzea eta analisi txiki bat egitea izan da, baina, gai honetan gehiago sakontzeko eta hizkera tabuak itzulpenean jasan dituen aldaketa eta omisioa azaldu ahal izateko, beharrezkoa litzateke aztergai gehiagotan oinarrituz corpus zabalago bat osatzea.

Amaitzeko, argi ikusi dugu urteak pasa ahala gero eta itzulpen naturalagoak eta egokiagoak egin direla euskaraz, filmek eskatzen duten tonua errespetatuz eta hizkera informalean omisioa baino gehiago ordezkapena erabiliz. Euskarazko bikoizketak duen fama txar hori justifika zitekeen film zaharretan, baina gaur egun itzulpen eta bikoizketa oso egokiak egiten dira, gure azken bi filmetan ikusi dugun bezala. Itzulpenetan ez da kalkorik erabili, eta euskara informalean erabiltzen den hizkera ondo errespetatu da. Beraz, bada garaia euskarazko bikoizketari buruzko tabu horrekin bukatzeko eta gure zinema euskaraz gozatzeko, kalitate bikaineko produktuak baititugu gure hizkuntzan.

## 7. Erreferentziak

- AGOST, R. (1999). *Traducción y doblaje: palabras, voces e imágenes*. Bartzelona: Ariel.
- Apocalypse Now*. (Zuz. Francis Ford Coppola). 1979. Estatu Batuak: Zoetrope Studios.
- ÁVILA-CABRERA, J. J. (2015). Propuesta de modelo de análisis del lenguaje ofensivo y tabú en la subtitulación. *VERBEIA. Revista de Estudios Filológicos. Journal of English and Spanish Studies*, (0), 8-27. <<https://www.ucjc.edu/wp-content/uploads/1.Jose-Javier-Avila-Cabrera.pdf>>
- BARAMBONES, J., & ZABALONDO, B. (2006). *Ikus-entzunezko itzulpena*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- CASTRO, X. (1999). La traducción puede *mejorar* una película. *El Trujamán. Revista diaria de traducción*. <[https://cvc.cervantes.es/trujaman/anteriores/marzo\\_99/03031999.htm](https://cvc.cervantes.es/trujaman/anteriores/marzo_99/03031999.htm)> [Kontsulta: 2021eko martxoaren 20a]
- CHAUME, F. (2004). *Cine y traducción*. Madril: Cátedra.
- CHAUME, F. (2012). *Audiovisual translation: dubbing*. Manchester: St. Jerome Pub.
- CHAUME, F. (2013). Panorámica de la investigación en traducción para el doblaje. *TRANS. Revista de traductología*, (17), 13-34. <[http://www.trans.uma.es/trans\\_17/Trans17\\_013-034.pdf](http://www.trans.uma.es/trans_17/Trans17_013-034.pdf)> [Kontsulta: 2021eko martxoaren 22a]
- Gran Torino*. (Zuz. Clint Eastwood). 2008. Estatu Batuak: Malpaso Productions, Media Magik Entertainment, Village Roadshow Pictures, Warner Bros.
- FONTCUBERTA I GEL, J. (2001). *La traducción para el doblaje y la subtitulación*. Madril: Cátedra.
- FUENTES-LUQUE, A. (2015). El lenguaje tabú en la traducción audiovisual: límites lingüísticos, culturales y sociales. *E-Aesla*, (1), 70-71. <<https://cvc.cervantes.es/lengua/eaesla/pdf/01/70.pdf>>
- JAY, K. L., & JAY, T. B. (2015). Taboo word fluency and knowledge of slurs and general pejoratives: Deconstructing the poverty-of-vocabulary myth. *Language Sciences*, (52), 251-259.



- LARRINAGA, A. (2003). Kaleko hizkera telebistako saioetan. *Bat: soziolinguistika aldizkaria*, (48), 39-51. <<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=750237>>
- MAYORAL, R. (2001). Campos de estudio y trabajo en traducción audiovisual. In Duro, M. (2001). *La traducción para el doblaje y la subtitulación* (19-46). Madrid: Cátedra.
- MOLINA, L., & HURTADO ALBIR, A. (2002). Translation techniques revisited: A dynamic and functionalist approach. *Meta: Journal des Traducteurs/Meta: Translators' Journal*, 47(4), 498-512.
- PÉREZ, L. (1998). Audiovisual translation. *Routledge Encyclopedia of Translation Studies*. Abingdon: Routledge.
- Snatch*. (Zuz. Guy Ritchie). 2000. Erresuma Batua: Columbia Pictures.
- VINAY, J. P., & DARBELNET, J. (1995). *Comparative stylistics of French and English: A methodology for translation*. Amsterdam: John Benjamins Publishing.
- ZUBILLAGA, N. (2013). *Alemanetik euskaratutako haur-eta gazte-literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez*. [Doktorego-tesia]. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. <<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/12431/8670ZubillagaEU.pdf;sequence=1>>
- ZUBIZARRETA, I. (2007). Euskarazko bikoizketa. Topaketa. In B. Zabalondo (arg.), *Euskarazko Bikoizketaren inguruko jardunaldia. Monografia*, EIZIE, Donostia, (34), 31-49. <<https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20080222/xubi>>
- [Kontsulta: 2021eko apirilaren 10ean]

## 8. Eranskinak

### 8.1. Apocalypse Now

| Jatorrizkoa   | Itzulpena   | Sailkapena  | Teknika           |
|---|---|-------------|-------------------|
| Saigon... <b>shit</b> . I'm only in Saigon.                     | Saigon... <b>kaka</b> . Saigonen jarraitzen dut oraindik. | Eskatologia | Itzulpen literala |
| Are you gonna shut the <b>damn</b> door?                        | Itxi atea!  | Nominalia   | Omisioa           |
| Don't be an <b>ass</b> .  | Zoazte <b>popatik hartzera</b> biok.                      | Sexua       | Birformulazioa    |
| <b>Shit</b> ...charging a man with murder in this place...      | <b>Kaka</b> ...hemen baten bati hilketa leporatzea...     | Eskatologia | Itzulpen literala |
| Clean, Mr. Clean, was from some South Bronx <b>shithole</b> .   | Txukun, Bronxekoa.  | Eskatologia | Omisioa           |
| (...) but it sure as <b>shit</b> was Chief's boat.              | (...) baina ontziko nagusia bera zen.                     | Eskatologia | Omisioa           |
| Why the <b>fuck</b> would he do that?                           | Zergatik egin ote zuen?                                   | Sexua       | Omisioa           |
| Concussion suck the air outta ya <b>damn</b> lungs.             | Leherketak aire guztia xurgatzen dizu.                    | Nominalia   | Omisioa           |
| (...) looking for the <b>shit</b> .                             | (...) izua zabaltzen.                                     | Eskatologia | Omisioa           |
| Get outta here or I kick your <b>fucking ass</b> !              | Aurretik kentzeko esan diat, <b>alua</b> !                | Sexua       | Ordezkapena       |
| You can cut out that sir <b>crap</b> , Lance, I'm Bill Kilgore. | Lasai, mutil! Bill naiz zuretzat.                         | Eskatologia | Omisioa           |

|   |  |             |                   |
|---|--|-------------|-------------------|
| Is that <b>Goddamn</b> village Vin Drin Dop or Lop?           | Ze izen dauka? Vin Drin?                                 | Erljioa     | Omisioa           |
| <b>Gook</b> names all sound the same.                         | Ekialdeko izen guztiak antzerakoak dira.                 | Nominalia   | Omisioa           |
| This whole, <b>shitty</b> country...                          | Herri <b>madarikatu</b> honetan.                         | Eskatologia | Ordezkapena       |
| It's all <b>Goddamn</b> beach break.                          | X  | Erljioa     | Omisioa           |
| Like a mean <b>motherfucker</b> , sir.                        | <b>Sasikumerik</b> handiena bezala.                      | Sexua       | Itzulpen literala |
| Yeah, I use Wagner. Scares the hell out of the <b>slopes!</b> | Wagner erabiltzen dut. Vietnamdarrak izutzen ditu!       | Nominalia   | Omisioa           |
| So we don't get our <b>balls</b> blown off.                   | Tiro batez <b>potroak</b> ez erausteko.                  | Sexua       | Itzulpen literala |
| <b>Fucking</b> savages!                                       | Basati <b>madarikatuak!</b>                              | Sexua       | Ordezkapena       |
| <b>Holy Christ</b> she's a savage.                            | Emakume bat izan da.                                     | Erljioa     | Omisioa           |
| Let's get that dink <b>bitch</b> .                            | X  | Nominalia   | Omisioa           |
| Ram that right skid up her <b>ass</b> .                       | Zulatu <b>ipurdia!</b>                                   | Sexua       | Itzulpen literala |
| You're from <b>Goddamn</b> New Jersey.                        | New Jerseykoa zara.                                      | Erljioa     | Omisioa           |
| OK fellows, quit hiding. Let's go <b>dickheads</b> .          | Ea mutilak, ez ezkutatu. Ez dut oilorik nahi.            | Nominalia   | Omisioa           |
| I'm not afraid to surf this <b>fucking</b> place.             | Hemen surf egiteko <b>potrorik</b> ez dudala uste duzu?  | Sexua       | Ordezkapena       |
| <b>Goddamn</b> , I want that treeline bombed!                 | <b>Kakatiok!</b> Bonbardatu behingoz zuhaitz lerro hori! | Erljioa     | Ordezkapena       |

|  |  |             |                   |
|--|--|-------------|-------------------|
| <b>Fuck</b> it! I'm gonna get some mangoes.                      | Bost axola! Mango bila noa.                              | Sexua       | Omisioa           |
| I couldn't <b>fucking</b> believe that one.                      | Ezin nuen sinetsi.                                       | Sexua       | Omisioa           |
| It's a tiger, a <b>fucking</b> tiger!                            | Tigrea! Tigre bat da!                                    | Sexua       | Omisioa           |
| A <b>fucking</b> tiger, <b>fucking</b> tiger...                  | Tigre bat izan da, tigre bat!                            | Sexua       | Omisioa           |
| I don't <b>fucking</b> need this.                                | Ezin dut gehiago jasan!                                  | Sexua       | Omisioa           |
| All I wanted to do is <b>fucking</b> cook!                       | Nik sukaldaria izan nahi nuen.                           | Sexua       | Omisioa           |
| I just wanted to learn to <b>fucking</b> cook.                   | Sukaldari ona izaten ikasi nahi nuen!                    | Sexua       | Omisioa           |
| He split from the whole <b>fucking</b> program.                  | <b>Pikutara bidali</b> zuen programa.                    | Sexua       | Ordezkapena       |
| 38 <b>fucking</b> years old.                                     | 38 urte zituen <b>putakumeak</b> .                       | Sexua       | Ordezkapena       |
| He had to put up with a ton of <b>shit</b> .                     | Matrakaldia jasan behar izan zuen.                       | Eskatologia | Omisioa           |
| I was 19 and it <b>damn</b> near wasted me.                      | Nik 19 urterekin egin nuen eta ia bertan geratu nintzen. | Nominalia   | Omisioa           |
| A tough <b>motherfucker</b> .                                    | Hark zeuzkan <b>potroak</b> .                            | Sexua       | Ordezkapena       |
| I almost got eaten alive by a <b>fucking</b> tiger.              | Tigre batek ia-ia jan egin nau.                          | Sexua       | Omisioa           |
| Really <b>unfuckingbelievable</b> .                              | Sinesteko ere honelakorik.                               | Sexua       | Omisioa           |
| What <b>balls</b> .  | Hark bai <b>potroak</b> .                                | Sexua       | Itzulpen literala |
| They were gonna nail his <b>ass</b> to the floorboards for that. | Sekulako ostikada eman nahi zioten horregatik.           | Sexua       | Omisioa           |

|  |   |               |               |
|--|---|---------------|---------------|
| This sure is a bizarre sight in middle of this <b>shit</b> . | A ze ikuskizuna halako zikinkeriaren artean.                    | Eskatologia   | Omisioa       |
| <b>Damn</b> if I know.                                       | Zer dakit ba.   | Nominalia     | Omisioa       |
| Hello to all you who work so <b>Goddamn</b> hard for (...)   | Kaixo Indarkeria Ekintzan parte hartu duzuen guztioi.           | Erljioa       | Omisioa       |
| No wonder Kurtz put a weed up command's <b>ass</b> .         | Ez da harritzekoa Kurtzek halako haserreak sortzea nagusiengan. | Sexua         | Omisioa       |
| <b>What the fuck</b> they think they're doing?               | X   | Sexua         | Omisioa       |
| He's specializing in bisting my <b>balls</b> .               | Kristorenak jasan eragiten dizkit.                              | Sexua         | Omisioa       |
| You <b>cherry boy!</b>                                       | <b>Marikoi</b> halakoa.   | Nominalia     | Ordezkapena   |
| Stop smoking that dope!                                      | Sartzazu droga hori <b>ipurditik!</b>                           | Konpentsazioa | Konpentsazioa |
| You're the only <b>fucking</b> prick I see around here.      | X   | Sexua         | Omisioa       |
| Throw the rope, <b>asshole</b> .                             | Ekartzak soka, <b>inozo</b> horrek!                             | Eskatologia   | Ordezkapena   |
| Hurry up, <b>motherfucker!</b>                               | Mugitu <b>ipurdiko zulo</b> hori!                               | Sexua         | Ordezkapena   |
| It's just a <b>fucking</b> boat.                             | X   | Sexua         | Omisioa       |
| Just some baskets and some ducks, <b>fucking</b> bananas.    | Ahateak, otarrak, bananak. Bah, betikoa!                        | Sexua         | Omisioa       |
| Bunch of <b>fucking</b> vegetables.                          | Barazki batzuk bazterrean.                                      | Sexua         | Omisioa       |
| Just <b>fucking</b> rice, that's all!                        | Arroza baino ez dago!   | Sexua         | Omisioa       |

|   |   |             |                   |
|---|---|-------------|-------------------|
| <b>Motherfuckers!</b>   | Barruak hustuko dizkizuet!                            | Sexua       | Omisioa           |
| <b>Fucking cocksucking mothers!</b>                           | <b>Putakumeak!</b>                                    | Sexua       | Ordezkapena       |
| Let's kill all the <b>assholes!</b>                           | Akabatu itzazue denak!                                | Eskatologia | Omisioa           |
| It's a <b>fucking</b> puppy.                                  | Txakurkumetxo bat.                                    | Sexua       | Omisioa           |
| <b>Fuck you.</b>  | <b>Kabroi</b> madarikatua.                            | Sexua       | Ordezkapena       |
| You are in the <b>asshole</b> of the world, captain!          | Munduaren <b>ipurdiku zuloan</b> zaude, kapitaina!    | Eskatologia | Itzulpen literala |
| <b>Son of a bitch!</b>  | <b>Putakumea!</b>                                     | Familia     | Itzulpen literala |
| There's a concrete <b>fucking</b> buker called Beverly Hills. | Hor goian dagoen bunker bat da Beverly Hills.         | Sexua       | Omisioa           |
| <b>Where the fuck</b> else do you think it would be?          | Non egongo da bestela?                                | Sexua       | Omisioa           |
| You think you're so bad, huh, <b>nigga?</b>                   | Beltz honek hik baino <b>potro</b> handiagoak dauzka! | Nominalia   | Konpentsazioa     |
| Go get the rope, <b>nigga!</b>                                | X   | Nominalia   | Omisioa           |
| There's no <b>fucking</b> CO here.                            | Komandanterik ere ez dago hemen.                      | Sexua       | Omisioa           |
| How could I <b>fucking</b> forget, man?                       | Ezin dut hangorik ahaztu.                             | Sexua       | Omisioa           |
| You can't die, you <b>fucker!</b>                             | Ezin duzu hil, entzun duzu?                           | Sexua       | Omisioa           |
| I'm in command here, <b>Goddamn</b> it.                       | Nik agintzen dut hemen, <b>coño.</b>                  | Erljioa     | Mailegua          |
| Why don't they <b>fucking</b> attack, man?                    | Zergatik <b>arraio</b> ez digute eraso egiten?        | Sexua       | Ordezkapena       |
| You <b>son of a bitch!</b>                                    | Kendu aurretik segituan, kendu!                       | Familia     | Omisioa           |

|   |   |             |                   |
|---|---|-------------|-------------------|
| That's <b>fucking</b> typical!                                | Betiko <b>putakeria!</b>                                    | Sexua       | Ordezkapena       |
| <b>Fucking</b> Vietnam mission!                               | Vietnameko misioa!  | Sexua       | Omisioa           |
| That's just <b>fucking</b> great, man!                        | Sinisteko ere horrelakorik!                                 | Sexua       | Omisioa           |
| <b>Shit</b> , that's crazy!                                   | Erokeria da, <b>kaka zaharra!</b>                           | Eskatologia | Itzulpen literala |
| Them <b>bastards</b> attacked us!                             | <b>Sasikumeok</b> eraso egin digute!                        | Nominalia   | Ordezkapena       |
| We could blow all them <b>assholes</b> away.                  | Leher ditzagun guzti horiek!                                | Eskatologia | Omisioa           |
| I ani't afraid of all skulls and altars and <b>shit</b> .     | Ez diet beldur burezur, altar eta <b>mokordo</b> guztiei.   | Eskatologia | Itzulpen literala |
| But now, <b>fuck!</b>   | Baina orain, <b>arraioa!</b>                                | Sexua       | Ordezkapena       |
| I'm asleep and dreaming I'm on this <b>shitty</b> boat.       | Lo nago, eta ametsetan ontzi honetan noala.                 | Eskatologia | Omisioa           |
| <b>Fuck.</b>  | <b>Kaka.</b>  | Sexua       | Ordezkapena       |
| (...) and I wasn't even in their <b>fucking</b> army anymore. | (...) baina ez nuen nire burua orain armadako kide ikusten. | Sexua       | Omisioa           |

## 8.2. Snatch

| Jatorrizkoa  | Itzulpena   | Sailkapena        | Teknika                  |
|--|---|-------------------|--------------------------|
| Get on the <b>fucking</b> floor!                                       | Lurrera joateko, <b>joder!</b>                                      | Sexua             | Mailegua                 |
| Get <b>fucking</b> down!   | Etzan lur <b>ostia</b> horretan!                                    | Sexua             | Ordezkapena              |
| I <b>fucking</b> hate <b>pikeys</b> .                                  | Gorroto ditut <b>alprojak</b> .                                     | Sexua + nominalia | Omisioa +<br>ordezkapena |
| <b>Fuck</b> me. Hold tight.  | Zaude pixka bat.  | Sexua             | Omisioa                  |
| What's to stop it blowing your <b>bollocks</b> off when you sit?       | <b>Barrabilak</b> lehertuko dituzu esertzean.                       | Sexua             | Itzulpen literala        |
| You mean Boris the sneaky, <b>fucking</b> Russian.                     | Boris errusiar <b>putaseme</b> iheskorra?                           | Sexua             | Ordezkapena              |
| Apparently, it's just impossible to kill the <b>bastard</b> .          | Itxura denez ez da oraindik jaio <b>putaseme</b> hori hilko duenik. | Nominalia         | Ordezkapena              |
| Pull your tongue out of my <b>arsehole</b> .                           | Atera zure mihia nire <b>ipurtzulotik</b> .                         | Sexua             | Itzulpen literala        |
| You're a ruthless little <b>cunt</b> .                                 | Kupidarik gabeko <b>alua</b> zara.                                  | Nominalia         | Ordezkapena              |
| <b>What the fuck</b> are you two looking at?                           | <b>Ze ostiari</b> begiratzen diozue zuek?                           | Sexua             | Itzulpen literala        |
| It stinks.   | <b>Joder</b> , hau kiratsa.   | Konpentsazioa     | Konpentsazioa            |
| Who's talking to you?  | Nor <b>ostiak</b> eman dizu hitza?                                  | Konpentsazioa     | Konpentsazioa            |
| Franky- <b>fucking</b> -Four Fingers has a diamond the size of a fist. | Franky-lau-hatz <b>putasemeak</b> ukabilaren pareko diamantea du.   | Sexua             | Ordezkapena              |
| Get somebody else to steal that stone!                                 | Ez lapurtu zuk harri <b>puta</b> hori!                              | Konpentsazioa     | Konpentsazioa            |



|   |  |                   |                                    |
|---|--|-------------------|------------------------------------|
| So don't use <b>idiots</b> for the job.                                   | Ez erabili <b>inozorik</b> beraz.  | Nominalia         | Itzulpen literala                  |
| Mary- <b>fucking</b> -Poppins.  | Mary Poppins <b>osti</b> hori.   | Sexua             | Itzulpen literala                  |
| (...) but he's about as Jewish as he is a monkey.                         | Judua? <b>Zakurraren putza!</b>  | Konpentsazioa     | Konpentsazioa                      |
| So <b>fuck off</b> .  | Beraz, <b>popatik hartzera</b> .   | Sexua             | Ordezkapena                        |
| Off a pack of <b>fucking pikeys</b> ?                                     | <b>Alproja osti</b> batzuei erostera?                                    | Sexua + nominalia | Ordezkapena +<br>itzulpen literala |
| Oh, you <b>bastard</b> .  | Ah, <b>putasemea</b> .   | Nominalia         | Ordezkapena                        |
| I <b>fucking</b> hate <b>pikeys</b> .                                     | Gorroto ditut <b>alprojak</b> .  | Sexua + nominalia | Omisioa +<br>ordezkapena           |
| <b>Fuck off</b> , I'll find him meself.                                   | <b>Kaka zaharra</b> , neuk aurkituko dut.                                | Sexua             | Ordezkapena                        |
| You're a real tight <b>fucker</b> .                                       | A ze <b>tasemea</b> zaren!   | Sexua             | Ordezkapena                        |
| <b>Fuck</b> , man. Call me Mickey.  | Ze <b>ostia</b> ? Esan Mickey.   | Sexua             | Ordezkapena                        |
| You should <b>fuck off</b> now while you still got the legs to carry you. | <b>Popatik hartzera</b> oraindik zutik zaudela.                          | Sexua             | Ordezkapena                        |
| Why do I want a caravan that's got no wheels?                             | Eta ze <b>ostitako</b> nahi det gurpilik gabeko karaban <b>puta</b> bat? | Konpentsazioa     | Konpentsazioa                      |
